

# Getxo >MEETING<



## Urriak 7

### **Berriro egiaztatu dugu funtzionatzen duela: marraztu eta irabazi.**

Udazkena GetxoMEETINGen aurrez aurreko saio berri baten eskutik etorri da. Oraingo honetan, errotuladorea eskuan, parte hartu duen enpresa bakoitzaren etorkizuna proiektatu dugu. Ariketa indibiduala izan da, bakoitzaren printzipioekin bat etorritz hazteko eta garatzeko moduari buruz elkarrekin hausnartzeko balio izan duena. Nola? Metafora bisualen laguntzaz.

Metafora gisa landareak eta landareok hazteko duten estilo desberdinak erabili ditugu. Eta marrazteari ekin diogu.

Izan ere, enpresa bat baduzu, hazi egin nahiko duzu. Eta haztearekin gauza askori buruz ari gara, barbarako:

- Zuretzat eskuragarri dagoen denboran haztea
- Mozkinetan haztea
- Sormenean eta zure lanaren kalitatean haztea
- Eskaintzen duzunaren argitasuna handitzean haztea
- Lankidetzetan edo sarean haztea
- Laguntza gehiago (taldea) izatean haztea
- Prestigioan/posizionamenduan haztea
- Lan-ildoetan/enpresa motetan haztea
- Eremu geografikoan haztea
- Espezializazioan haztea

- Gure zerbitzuak des-estazionalizatuz edo ordutegiak orekatuz haztea.

Zure enpresa landare edo zuhaitz bat balitz bezala marraztea, sustraiekin, adarrekin eta fruituekin, hainbat galdera estrategiko egiteko abiapuntua izan da. Hausnarketa sakona egite aldera. Horrela, eguneroko presetan beharrezko espazioa ez duten erantzunak iristen dira.

Nola hazi nahi dut? Zerk laguntzen dit hazten? Zerk eragozten du haztea? Nola babestu neure burua nire "zuhaitza" haztea eragozten duten ezbeharren aurrean?

Etorkizunaren ikuspegi argiagoa izanda, eta gainera, ikuspegi bisualagoa izanda, errazagoa da erabakiak hartzea.